

LIBERTADEA, BAÑA GERNIKAKO ARBOLAPEKOA.

Composicion señalada con mencion honorifica en los Juegos florales de la EUSKAL-ERRIA de Bilbao.

1

Zeruok beti dakustaz dollar,  
Odei bat bere bagarik,  
Iya sei urte onetan emen  
Ez dabe opa euririk;  
Eguzkiaren berotasunak  
Gaukaz añ baltzizkaturik,<sup>1</sup>  
¿Nok esango dau ez gagozala  
Azalez gaztekarturik?

2

Negu danetan leyaz<sup>2</sup> dakustaz  
Errerik solo ta larrak,  
Uda danetan kiskorrik oso  
Bedar, ota ta arbolak;  
Lorarik iñon ez da agiri  
Girtenak<sup>3</sup> dagoz igarrak,  
Ura bakarrik dau ichasoan  
Egarriz illten dagoanak.

3

Baldin entzungo ezpanen emen  
Geure Berbeta ederra,  
Entzungo ezpaneu barriro diñot  
Paradisuko Euskera,  
Eta zutunik ezpanekust gaur  
Gernikan Arech laztana  
Esango neuke ¡Gaztelan nago!  
Bapere dudarik baga.

4

Baña orañdik zarden<sup>4</sup> zakustaz  
Zorioneko Arbola,  
Orañdik zuzen ikusten zaitut  
Abe<sup>5</sup> adarrez zabala,  
Bedeinkatua zugatz guztien  
Artean zu bai zu zara,  
Libertadeko banderea zu  
Zarealako bakarra.

5

¡Libertadea! libertadea!  
Nun nai dantzudan soñua,  
Zure azpian au bizi zan ta.  
Ill egin dabe gaisua,  
¿Zeñ libertadek kenduko deusku  
Daukagun sentimientua?  
Ez beintzat gaurko libertadeak  
Dalako erderazkua.

6

Au ez da bada Libertadea,  
Au da buztarri astuna,<sup>6</sup>  
Au da izenez osasuna ta  
Izatez gaisotasuna;  
Au da kayola estu-estu bat  
Bere choria da Usua,  
Nok ezin daben egan aratu  
Lenago legez zerua.

7

¡O! Libertade katolico ta  
Euskeldun benetakua!  
Or arech-pean milla urtean  
Asabak gozaurikua;  
¡O! Libertade mundu guztian  
Zarata<sup>7</sup> egindakua,  
¿Zelan zakustaz zeure Erritik  
Orrelan desagertua?

8

Erdel erritik sartu jakun bai  
Suge bat zorigaiztuan  
Bere beroa leun<sup>8</sup> gaztelarrakaz  
Danok engañañ ginduan,  
Suge zikiñ au buruan jo ta  
Ill bagendu lenenguan,  
Euskel-erriko libertadea  
Gaur biziko zan munduan.

(1) *Baltzizkaturik*, ennegrecerse.—(2) *Leya*. sin.<sup>o</sup> de *isotz-a*, hielo.—(3) *Girten-ak*, los tallos.—(4) *Zarden*. sin.<sup>o</sup> de *lerden*, g.—(5) *Abe-a*, tronco, madero, árbol.—(6) *Astuna* sin.<sup>o</sup> de *pisua*, pesado, a.—(7) *Zarata*, sin.<sup>o</sup> de *Ots-a*, ruido.

9

Gaur biziko zan libertade au  
 Bakarrik egiazkua,  
 Zeñegaz gure lur onek eban  
 Irudi Paradisua,  
 ¡Ay! ez bagéndu jan suge aren  
 Sagar politikakua!  
 Mundua mundu emenche geun-  
 Zerucho benetakua. [kan]

10

Beti ta beti biziko giñan,  
 Asaben libertadean  
 Lan jan, eta lo egingo euskuen  
 Umeak beti echean;  
 Eta mirurik iñoz betorren  
 Arrapetako ustean,  
 Aitarren-seme<sup>1</sup> jagiko giñan  
 Ill edo goitu artean.

11

Etzaitez baña ill atsekabesz  
 Laztan zaitudan Erria,  
 Bizi dalako orañdik emen  
 Zuretzat Salbagarria,  
 Zeure Arbola gañean orra  
 Libertadeko Eguzkia,  
 Asaba aundi Jaun Zuriaren  
 Kurutz adoragarria.

12

Libertadea kurutza orrek,  
 Bakarrik daike ekarri,  
 Zugatz orretan guraso zarrak  
 Agaitik euskuen jarri;  
 Ez dakigula ez arren bada  
 Bere gañetik erori,  
 Euskal-erriak Libertadea  
 Zor deutsalako berorri.

13

Berorregaitik emon zenduan  
 Zuk bai, arbola santua,  
 Milla urtean ezkurrá ugari  
 Gozo ta osasuntsua,

Osterantzean<sup>2</sup> ¿nun izango zan  
 Lur au parebagakua?  
 ¿Zelan gozauko eban beronek  
 Libertade egiazkua?

14

Beti librea, beti nasaia,<sup>3</sup>  
 Zan emengo bizitea,  
 Bere ondasun danen guztien  
 Erri au oi zan jaubea,  
 Ez eban inoz ez onek egin  
 Gaztelar borondatea,  
 Baldin ezpazan euskal oiturai  
 Ondo etorken gauzea.

15

Orra baña gaur Gaztelan legea  
 Nekezka jaten ogia,  
 Urte askoko leorteagaz  
 Zeruruntz eske euria;  
 Gure Arbola añ dontsuari  
 Urten dakion orria,  
 Gozadu daigun bere azpiko  
 Kerizpe maitegarria.

16

Erdue bada lengo justuri<sup>4</sup>  
 Ekachak, eta indriskak,<sup>5</sup>  
 Erdue edur, erdue euri  
 Urjola ta zaparradak,<sup>6</sup>  
 Erdue arin ezkotutera,<sup>7</sup>  
 Mendi basóok ta larrak,  
 Soñeko berde euskaldunakaz  
 Jantzi daitezan dandanak.

17

Urten dakizun bai zuri bere  
 Orria eta ezkurra,  
 Gazte gazterik jarri zaitean  
 Gure Arbola kutuna,  
 Mundu guztitik egin daizuen  
 Iñoz ez lako agurra,  
 Umeak dabe icharoten bai  
 Laster orlako eguna.

FELIPE ARRESE Y BEITIA.

(1) Aitarren-seme, padres é hijos.—(2) Osterantzean, b. sin.<sup>º</sup> de bestela, gañerakoan.—(3) Nasai-a, b. sin.<sup>º</sup> de lasai-a, g.—(4) Justuria, b. trueno.—(5) Indriskak, cerrazon.—(6) Zaparrada, chaparrón, aguacero.—(7) Ezkotu,regar, bañar.